

EUSKALTZAINDIAREN XV. BILTZARRA:
AGIRIAK: BAIONA, 2001

Baiona, 2003-XI-25

EUSKALTZAINDIAREN XV. BILTZARRA

Baiona, 2001.

IKER 14 liburukien auzkezpena

Baiona, 2003-XI-25

*Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua*

Jaun-Andereak egun on.

Duela bi urte, bai Bilbon eta bai Baionan ospatu zen Euskaltzaindiaren XV. Biltzarra, gogoan atxikitzen zirela Bilboko hiru egunetan Resurreccion Maria de Azkue eta Julio de Urkijo, gure Akademiak ukan dituen bi ikerle haundi eta Baionako bi egunetan Pierre Lafitte gramatikalari eta idazle famatua.

Egun, hemen Kontseilu Orokorreko areto nagusi honetan (eskerrak bihurtzen dizkiodala Elichondeborde andereari haren baimenari esker hemen baigaude) aurkezten ditugu Baionako bi egunen emaitzak.

Oroit dezadan lehen aldikotz Euskaltzaindiko kongresu batean sailkatu zirela aztertzen ziren bi gaiak, bi gelatan bilduz ikerleak, gramatikariak gela batean, literaturazaleak bertze batean. Hala egin zen eta hala agertzen da Iker 14 honek bi liburukitan azaltzen duela bi taldeen emaitzak.

Iker 14 (I)-ak biltzen ditu 21 gramatika lan eta Iker 14 (II) delakoak 16 lan literatura gaiak aztertuz. Orotara beraz 37 ikerlan, gramatika bat ingelesez idatzia, literaturan bat gaztelaniaz, bertze 35 guztiak euskaraz. Ez da harritzekoa jakinik nola hedatu diren ikerketak euskaldunen artean unibertsitatei esker azken mende laurden honetan. Euskarak bere tokia hartu du eta lehentasuna lortu goimaileko ikerlanetan, seinale ona gerorako.

Ene eskerrik beroenak har bitzate J.M. Makazaga-k eta Beñat Oyharçabal-ek Iker 14(I)-en argitaratzaileek, halaber Aurelia Arkotxa-k eta Lourdes Otaegi-k Iker 14 (II)-ren paratzaileek, ahantzi gabe Rikardo Badiola egin dien laguntzaren gatik.

Akitania-Euskadi-ren diru-laguntzaz baliatuz egin zen Euskaltzaindiaren XV. Biltzarra eta bi liburukietan agertzen dira zinez haien eskertzeko erakunde publikoen zibiluak, Iparraldekoak nola Hegoaldekoak.

Eta orain ene ondoan baitira bai Beñat Oyharçabal Iker 14 (I)-en arduraduna eta Aurelia Arkotxa Iker 14 (II)-rena emaiten diet hitza.

GRAMATIKA GAIAK

iker - 14 (I)

EUSKAL GRAMATIKARI ETA
LITERATURARI BURUZKO IKERKETAK
XXI. MENDEAREN ATARIAN

EUSKAL GRAMATIKARI ETA
LITERATURARI BURUZKO IKERKETAK
XXI. MENDEAREN ATARIAN



EUSKAL GRAMATIKARI ETA
LITERATURARI BURUZKO IKERKETAK
XXI. MENDEAREN ATARIAN

EUSKAL GRAMATIKARI ETA
LITERATURARI BURUZKO IKERKETAK
XXI. MENDEAREN ATARIAN

LITERATURA GAIAK

iker - 14 (II)

IKER 14. AURKEZPENA
PIRINIO-ATLANTIKOETAKO DEPARTAMENDUKO
KONTSEILU OROKORRAREN BAIONAKO EGOITZAKO EKITALDIA

Baiona, 2003-XI-25

B. Oyharçabal

Jaun-andereak.

Plazer dut gaur hemen, J. Haritschelhar euskaltzainburuarekin batean, eta A. Arkotxa, Bordele 3.eko Unibertsitateko irakasle kadetraduna lagun dudala, IKER, Baionako euskarari eta euskal testuei buruzko ikerguneko (CNRS, Bordele 3ko Unibertsitatea, UPPA) arduradun gisa, duela bi urte edo, P. Lafitteren omenez eta haren sortzearen mendemuga kari, egin zen nazioarteko biltzarreko akten aurkeztea.

Bi liburukitan bilduak dira biltzarreko lanak, orotara 750 bat orrialde direlarik, eta 37 ikerlan 43 egileren artean eginak. Liburuko aitzin hitzean erraten den bezala, P. Lafitteren sortzearen mendemugako biltzar horren helburua zen Lafittek euskalari-tzan gehienik landu zituen bi lan sail nagusietako espezialisten biltzea, bai gramatikariak, eta bai euskal letren historiaren aztertzaileak ere. Xedea, hitz batean, hogeita batgarren mendearen hastapen honetan, euskal gramatikaren eta euskal literaturaren historiaren ikerketetan gauzak zertan ziren erakustea zen. Hala dio biltzarren izenburuak ere: *Euskal gramatikari eta literaturari buruzko ikerketak XXI. mendearen atarian*.

2001eko irailaren 20 eta 21ean egin zen biltzarra, Baionako fakultatean, segur lehen aldia baitzen Iparraldean maila eta hedadura horretako biltzar bat antolatzen zutela euskararen eta euskal letren ikertzaileek.

Biltzar hartako egitarauari, eta aktak biltzen dituzten bi liburuki gotor hauei behatzen zaielarik, bi puntu badira azpimarratu behar direnak eta, gure ustez, euskalari-tzaren aitzinamenduaren ondorio diren neurrian, pozgarri ere direnak : lehenbizikorik, ikertzaile belaunaldi berri baten agertzea; bigarrenekorik, biltzarkideek bi batzar areotan paraleloki bildu behar izatea, batzuek literatura gaien lantzeko, eta besteek, berriz, gramatikari buruzkoak.

Lehenbiziko puntua denaz bezain batean, aski da ikustea zenbat ikertzaile diren liburu honetan beren lanak agerrarazi dituztenak, *iker-2* Lafitte bizi zeneko omenezko liburuan orduan gazteegi izanez parte hartu izan ez zutenak berrikuntzaren hedaduraz ohartzeko. Ez da dudarik, azken hogeitaz urteetan denbora ez dela alferrik pasatu eta unibertsitatean euskalari belaunaldi berri bat formatua izan dela. Ereintza horren fruituak ageri dira hemen.

Bigarren puntua ere, beste modu batean, berriztatze honen erakusgarri da, zeren ez baita dudarik biltzarkideak *paraleloki* bildu behar izateak euskalaritzaren alorrean azken bi hamarkadetan gertatu aldaketa sakon bat adierazten duela. Alabaina, lehen aldia zen euskalaritzako gisa horretako biltzar batean literatura ikertzaileak eta gramatikariak, elkarretarik bereiz, zein bere alde, elkarretaritzen zirela elkarri beren lanen berri emateko. Ez da hori parte hartzaileen kopuruagatik bakarrik gertatu, baina bi alor horietan azken urteetan egin diren aurreremenduen ondorioz ere, ezinezko bihurtu baita ikertzaileentzat gaur egun bi sailetan manera jarraiki batean aritzea. Dakigunaz, duela ez hain aspaldi oraino, orotan eskas baitziren langileak, euskalariak, bai K. Mitxelenaren garaikoak, bai, areago, P. Lafitteren edo R.M. Azkueren belaualdikoak, orotan aritzera behartuak ziren. Parte handi batean euskalaritzaren gibelamenduaren ondorioa zen hori, eta igurika zitekeen (beldur izatekoa ere gisa batez jakitate eremuen zatikatzetxe etengabearen alderdi txarrak kontuan hartzen baditugu) euskara unibertsitatean sarztearekin eta hari buruzko ikerketak aitzina joatearekin eremu desberdinetako ikerketariak ere elkarrengatik urrunduko zirela. Hain zuzen hala gertatu da.

Horra zergatik bi liburukitan ateratzen diren biltzar hartako aktak, batean gramatikari buruzkoak, eta bestean literaturari buruzkoak, biltzen direlarik. Lehenbizikoaren argitalpena (*iker14-I*), J. M. Makatzaga, Euskaltzaindiko Gramatika Batzordeko idazkariak eta neronek, IKER ikergunearen izenean, prestatu dugu hogeita bat gramatika ikerlan bildurik hartan. Ikusiko duzun bezala, lan horien artean, usaiko ikerketa deskriptiboen edo formalagokoen ondoan, ikusmolde eta azterbide berriagoen seinale direnak ere agertzen dira, hala nola hizkuntza patologiarri, hizkuntzaren barne-garapenari, edo hizkuntzen ikerbide informatikoei dagozkienak. Literatura gaiak erabiltzen dituen bigarren liburukiaren argitalpena (*iker 14-II*), berriz, L. Otaegik, Euskaltzaindiko Literatura Batzordearen izenean, eta A. Arkotxak, IKERen izenean, prestatu dute. Hamasei ikerlan bidurik daude hartan, Lafitte sortu zen arteko euskal literaturaren gaiak atzertzen dituztenak. Zinez lan eder eta mamitsua.

Eskerrak bihurtu nahi dizkiet biltzar haren antolatza eta liburu honen osatzera lagundu duten guztiei, bai parte hartu duten txosten egileei, bai eta egitaraua finantzatu duten erakunde publikoei ere, izan daitezen mugaz alde batekoak (Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorra, eta Akitaniako Eskualdeko Kontseilua, eta DRAC, Kultura Ekintzarako Akitaniako Zuzendaritza), nola beste aldekoak (Eusko Jaurlaritza).

EUSKAL GRAMATIKA ETA LITERATURARI BURUZKO IKERKETAK XXI. MENDEAREN ATARIAN

Literatura gaiak

Baiona, 2003-XI-25

Aurelia Arkotxa

Prestatzaileak: A. Arkotxa & L. Otaegi

Bernard Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae*-ren lehen inprimatzea (Bordele, 1545) eta Pierre Lafitteren sortze-muga (1901) izan ziren literatura sailan hautatu bi urte-mugak. Nolapait Frantzia Oulipo-ko taldekoek literatura-sorkuntzan beren buruen akuilatzeke erabiltzen zituzten muga mota bat, literatura-kritikari aplikatua. Nolapaiteko desafio bat ere, umore pixka batekin hautatua egia erran, euskarazko literatura sorkuntzak ezagutu duen boom izugarria XX. mendeko azken 20 urteetarik hona ezagutzen ari duguna baita. Bertzalde, idazle-gizaldi berri horrek baitekerra ere berekin, bere 'saihetsean', kritikari-gizaldi berri bat gaurko irakurlearen eta gaurko testuaren arteko harremanean kokatzen dena, garaikidea dugun literatura-esparruan leku handia hartzen duena. Ondorioz, Iker 14 zenbaki honek duen beste interes berezia da ikustea ohidurazko esparrutik kanpo dabiltzan kritikariek zer bisione dakarten 1545^a eta 1901^a artean den aroan bortxaz kokatu behar zuten hautatu gaiaren bidez. Azkenik, 2001ean Baionako Fakultatean antolatu zen Literatura-Batzarrak generazio berri bat badela gaur, osoki literaturan espezializatua dena, agertu du. Literatura-kritikan gertatu den iraultza horren lekuko da Iker 14.